



DSS2016.EU



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2015-11-25, DEIALDI BEREZIAREN AZAROKO SAIOAREN MEMORIA

SAIOAREN HELBURUAK:

- ▶ **DSS2016aren irekiera ekitaldietarako deialdi berezian aurkeztutako proiektuen esleipena, 2.016€ eta 20.160€ kategorietan.**
- ▶ **Hautatuko proiektuen onarpena.**
- ▶ **Balorazioak: egunekoa eta orokorra.**

PARTAIDEAK:

-2016 BULEGOTIK: Enara Garcia, Partaidetza Zuzendaritza; Mikel Goñi, Energia Olatuak programaren arduraduna;

-ARDORA LAN TALDEA: 7 partaide, 4 emakumezkoak eta 3 gizonzkoak.

-AZTIKER IKERGUNETIK: Teknikari bideratzaileak: Markel Ormazabal eta Susana Martinez.



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA

Gaurko saioa berezia da. Izan ere, DSS2016 egitasmoaren hasiera ekitaldietan parte hartzeko aurkezturiko proiektuen esleipena egin dugu. Eta horretarako, ARDORA 1 eta ARDORA 2 Lan Taldeetako kideen parte hartzea izan da.

Saioari hasiera eman aurretik, hasiera ekitaldien kudeaketa ardura duen Felipe () hartu du hitza ekitaldien nondik norakoak agertzeko. Jarraian, Mikel Goñi Energia Olatuak programaren arduradunak deialdi honen berezitasunak agertu ditu.

2016 urteko Donostiako Europako Kultur Hiriburutzaren inaugurazio astearekin bat egingo duten herritarren ekimenak sustatu nahi ditu DSS2016EUK, eta horretarako Energia-olatuak programaren aparteko deialdia ireki du. Deialdi honen helburua da hiriburutzaren *Elkarrekin bizitzeko kultura* leloaren inguruan hausnarketa eragitea; hain zuzen ere, Donostia 2016k topaguneen inguruko gogoeta piztu nahi du, hau da, pertsona, proiektu eta ezaugarri ezberdinek bat egiteko balio duen ororen inguruko hausnarketa.



Aparteko deialdi honetan, Europako Kultur Hiriburutzaren urtearen hasieran egingo diren hamar proiektu lagunduko dira 2.016na euroekin; eta proiektu bat 20.160 euroekin.

Ohiko deialdietako baldintzak betetzeaz gain, deialdi berezi honen baitan diru-laguntza jasoko duten proiektuek honako ezaugarriak eduki beharko dituzte:

- Diruz lagunduko diren jarduerak Donostian gauzatu beharko dira.
- Ekimen osoa, edo horren parte bat, 2016. urteko urtarrilaren 21ean, 22an, 23an eta 24an gauzatu beharko da.
- Jarduera hauek "topaguneak" gaiarekin bat etorri behar dute; hau da, diruz lagunduko diren proiektuek ezberdinak biltzeko eta zubigintzarako balio beharko dute. Topaguneak; pertsonak, lan egiteko moduak, ezaugarriak eta abarbat egitea errazten duten proiektuak edo egitasmoak; hau da, ezberdinak biltzeko eta zubigintzarako balio duten proiektuak, ekintzak eta bestelako jarduerak.
- 20.160 euroko diru-laguntza eskuratzen duen proiektua hiriko auzo batean baino gehiagotan gauzatu beharko da.

DSS2016EU-ko beste laguntza ekonomiko zein material jaso duten proiektuek ezin izango dute diru-laguntza honetara jo.

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Gaurko saioan 2.016€-ko 24 proiektu eta 20.160€ko 7 proiektu aztertuko ditugu. Lehen kategorian 10 proiektu esleitzeko aukera dago; bigarrenekoan, berriz, bakarra. Eta "aukera" hitza aipatu da, izan ere ARDORA lan taldeko partaideek kopuru horiek betezeko nahikoa mailarik ez dagoela irizten badiote, bete gabe uzteko aukera dagoela azpimarratu baita. Alegia, ez dela zertan gaurko saioaren amaieran 11 proiektu esleiturik egon behar.



Beharrezko aurkezpen eta azalpenak eginda, eta kontutan harturik ARDORA Lan Talde ezberdinetako kideek parte hartzen dutela saioan, nork bere burua aurkeztu du taldean agertuz zein ARDORA Lan Taldeko kidea izan den.

ARDORA LAN TALDEA:


Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK

Parte hartzaileek etxeko-lanak eginda ekarri dituzte. Hau da, kategoria bata zein besterako balorazio kuantitabioa egina zegoela eta koadroan jasota hasi da saioa.

Saioa 2.016€ kategoriako 24 proiektuak aztertzen hasi dugu.

Gaurko deialdi bereziko baldintzak betetzen ez zituela eta, 569 kodeko proiektua esleipenetik kanpo geratu da. Eta hala ez izateko aukera egon baldin bada ere, azkenerako 10 proiektu esleitu dira. Parte hartzaile bakoitzak 10 gometza izan ditu gogokoen dituen proiektuetan jartzeko; proiektu bakoitzari bi gometza baino gehiago ezin izan dizkion arren jarri.



Proiektu batzuekin adostasun nabaria egon bada ere, azken bi proiektuak aukeratzeko lau proiekturen artean zalantza sortu da. Korapiloa askatzeko gometza bana banatu zaie parte hartzaileei berriro ere. Hauek dira ariketaren emaitzak koadroan jasota, eta onartuak izan diren proiektuak 2016€ko kategorian:

TAULA OROKORRA

| KODEA | 569 | 570 | 571 | 573 | 583 | 584 | 585 | 586 | 587 | 588 | 601 | 602 | 603 | 604 | 605 | 606 |
|--------------------|-------------------------|----------|---------------|------------------------|---|---------|--|--------------|-------------|---|----------------|---------------------------|------------------------|---|-------|-------------|
| PROIEKTUAREN IZENA | Irutxulo-Antiguo Balfok | ESENTZIA | Xalto Xaltoka | Anfiteatro interactivo | Un viaje por Euskal Herria a través de los sentidos | LAGUNAK | Las lenguas...¿son vehículos de unión o desunión entre las personas y los pueblos? | Aurresku '16 | TRIKU-HARRI | Arte y cultura como formas de encuentro entre personas víctimas y personas condenadas | HACK Donostia! | Danzas populares europeas | La virtud de un puente | Concierto músicos de la calle Donostia 2016 | Sokak | BI POLIEDRO |
| GUZTIRA | | -11 | -9 | -1 | -7 | -7 | 5 | -7 | 3 | 9 | 1 | 17 | 5 | 3 | -5 | -8 |

| KODEA | 609 | 611 | 612 | 614 | 615 | 617 | 618 | 620 |
|--------------------|-------------------|---------------|--------------------------------------|----------------------|---------------------------------------|---|---|-------|
| PROIEKTUAREN IZENA | Para convivir más | HITZAK-TIZHAK | Háblame despacio que quiero volar... | Irudien elkarrizketa | "AUZOKO" Aniztasunean euskara plazara | La dislexia y la sociedad: unidas en pro de la cultura y el conocimiento. | Revista electrónica de gastronomía, ciencia y diseño+taller de cocina y nutrición 2.0 | KIDSS |
| GUZTIRA | 7 | -4 | 14 | 9 | 6 | 6 | 1 | 4 |

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Behin partaideek haien lehen balorazio kualitatiboa eginik, azpimarratu dira hamar proiektu. Bi balorazio horiek eginik, eta ordena zehatzik gabe, honako proiektua izendatzen da **2.016€ko diru-laguntza jasotzeko:**


- ▶ **KODEA 586: Aurreku ´16**
- ▶ **KODEA 588: Arte y Cultura como formas de encuentro entre personas victimas y personas condenadas**
- ▶ **KODEA 602: Danzas populares Europeas**
- ▶ **KODEA 603: La virtud de un puente**
- ▶ **KODEA 604: Concierto músicos de la calle Donostia 2016**
- ▶ **KODEA 612: Háblame despacio que quiero volar...**
- ▶ **KODEA 614: Irudien elkarrizketa**
- ▶ **KODEA 615: "AUZOKO" Aniztasunean euskara plazara!**
- ▶ **KODEA 617: La dislexia y la sociedad: unidas en pro de la cultura y el conocimiento**
- ▶ **KODEA 620: KIDSS**

Esleipen honetan ordezeko proiektu bakarra hautatu da. Azken bi proiektu hautatuekin lehian izan den proiektua izan da ordezeko aukeratu dena:

Ordezkoa: KODEA 585: Las lenguas...¿son vehículos de unión o desunión entre personas y pueblos?

Jarraian, 20.160€ko diru laguntza esleitzeko ariketari ekin dio taldeak. Kasu honetan, ARDORA LAN TALDEKO parte hartzaileek 7 proiekturen artean bat aukeratu behar izan dute. 2.016€ko kategorian bezala, esleipen hau egiteko ere parte hartzaileek etxeko lanak eginda ekarri dituzte; eta ondorioz, dinamika balorazio kuantitatiboa jasota zuen taula baten gainean abiatu da.

Proiektuak ban-bana aztertu ostean, parte hartzaileek gometza bakarra izan dute gogokoen zuten proiektua aukeratzeko. Esleipen honetan, eta hautaketaren fase honetan, parte hartzaile guztiek proiektu bera aukeratu dute. Zalantza, ordea, ordezkoa bilatzerakoan sortu da. Hau da, hautatu den proiektuak azkenean aurkeztu ezingo balu, arrazoi ezberdinak medio, zein proiektuk ordezkatzeko duen erabakitzeke ez da adostasunik aurkitu. Lan taldeak erabaki du esleipenera aurkeztu ziren gainontzeko proiektuen artean batek berak ere ez zuela baldintzarik betetzen hautatua izateko. Eta ondorioz, ordezkoaren postua bete gabe geratzea erabaki dute parte hartzaileek..




Ondorengoa da aparteko deialdi honetan eta 20.160€ko kategorian hautatua izan den proiektua:

- ▶ **KODEA 616: Hiribiltzen. La vuelta al mundo en 84 días.**

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Jarraian, dinamikaren nondik norakoak eta emaitza jasotzen dituen koadroa atxikitzen dira:

| KODEA | 572 | 607 | 608 | 610 | 613 | 616 | 619 |
|-----------------------|---|-----|----------------------|----------------------|--|--|----------|
| PROIEKTUAREN IZENA | Punto de encuentro Tunel peatonal de la Antigua | OLA | MSKZ DNST BRLN | Para convivir más | Proyección de cortometrajes por diferentes puntos d ela ciudad | Hiribiltzen. La vuelta al mundo en 84 días (2.016 horas) | BOZ_GORA |
| GUZTIRA | 1 | 4 | 8 | 6 | 5 |  14 | 1 |

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

3. BALORAZIOA:

Saioa amaitu aurretik, beste behin ere, partaide denei eskatu zaie saioaren balorazioari dagokion galdetegia betetzea:

SAIOari dagokiona, hots, 2015-11-25 dataren saiokoa.

Galdetegien betetzea dela eta, azpimarratzen da aldiro aztertzen direla puntuazioak eta horien baitan saiatzen ari direla egokitzapenak egiten aldiro.

Bide batez, bestelako balorazioa ere egin dute parte hartzaileek; hots, koloretako itsa argiena. Balorazio honek zentzu berezia izan du. Izan ere, ARDORA 1 LAN TALDEKO kideen azken pate hartzea izanen baita gaurkoa. Datorren hilabetetik aurrera ARDORA 3 LAN TALDEKO kideek gaurkoa bezalako deialdi berezietan laguntzeko deia jasoko dute, eta balorazio saio berezian adierazi zenez, epaimahi herritarraren dinamikotasuna ziurtatzearren, parte hartzean denbora muga jartzea lehenetsi zen.



Parte hartzaile denek itsas argi berdea hautatu dute saioa baloratzeko.

Orain arteko lana eta ekarpenak eskertuz eta baloratuz, txaloka agurtu da lan saioa. Eta DSS2016aren ekitaldietan elkar ikusiko dugula oroitaraziz...

...bilera amaitutzat eman da iluntzeko 21'00etan.

Donostian, 2015eko azaroaren 25ean